

EUOPAR PROIEKTUETARAKO AUKERAKETARAKO IRIZPIDEAK

Aurreko ikasturteko ikasgai guztiak gaindituta izatea ezinbesteko da lehenengo fasera pasatzeko.

Lehenengo fasea: ikasle bakoitzaren irakasle taldeak ikaslearen heldutasun mailaren balorazio bat egingo du (autonomia, gizarte trebetasunak, egokitzapen maila, gatazken ebazpena, ikastorduen probetxua)

Ikasleak balorazio hau gainditu behar du proiektuan parte hartu ahal izateko.

Fase hau gainditu duten ikasleak hurrengo hautaketa fasera pasako dira.

Bigarren fasea: honako alderdiak baloratuko dira:

KONTZEPTUA	ERABILITAKO TRESNA	PUNTUAK
Egokitzapen maila, kolaborazioa, gatazken ebazpena, autonomia, motibazioa, interesa, partaidetza	Banakako elkarrizketak	25
Hizkuntza ikastaroen bertaratzea eta probetxua	Ikastaroen bertaratze zerrenda eta ikastaroen irakaslearen balorazioa.	20
Zikoko klaseetara bertaratzea.	Bertaratze zerrenda.	20
Harrerako herrialdearen hizkuntza maila	Hizkuntza frogak	15
Ikasketa-espeditentea	Noten ziurtagiria.	15
CV Europass		5

Inklusioa eta aniztasuna bultzatzen duen Erasmus+ estrategia jarraituz eta ekitatea eta inklusioa bultzatzeko helburuarekin, beken %5a zailtasun egoerak dituzten ikasleentzat gordeko da. Zailtasun hauek honako mota hauetakoak izan daitezke: desgaitasunak (fisikoak edo mentalak), ikasketetan zailtasunak, zailtasun ekonomikoak, ezberdintasun kulturalak, osasun arazoak, oztopo sozialak edota geografikoak. Egoera hauek guztiak dagokion dokumentazioarekin ziurtatuko dira.

Hautaketaren emaitza ikastetxeko web orrian eta bi eraikinetako iragarki taulan argitaratuko da abenduaren hasieran.

Puntuazio altuena lortu duten ikasleak aukeratuko dira.

Europar Proiektuen Batzordea



Cofinanciado por el programa Erasmus+ de la Unión Europea